



## Gabonetako ohitura zaharrak berreskuratuko dira abenduko zubian Sagardoetxean

📅 Abe 4, 2018 🌐 Museok 💬 0 comments



Abenduko zubian (abenduak 6-9), **Sagardoetxeak** garai honetako ohitura zaharrak berreskuratuko ditu: bisitariak sagar eta kandelekin apainduko dute gabonetako pinua antzinan bezala eta sagardo berridun barrikotea dastatuko dute gaztainerkin lagunduta.

### Debekatutako fruitua argitan

Abenduko zubian (abenduak 6-9) antzinako ohitura zahar hau berreskuratuko da **Sagardoetxean**. Gabonetako pinu bat jarriko da botila, sagar eta kandelekin apainduta eta museora gerturatzen diren bisitariak beren sagarrak **dekoratu**, urte berrirako desioak idatzi, pinuan zintzilikatu eta kandelak pizteko aukera izango dute.

Jatorri alemaniarra duen kristau usadio honek 1.400 urte baino gehiago dauzka. Jatorriz, pinuak sagarrekin (tentaldiaren ikurra) eta kandelekin (argiaren ikurra) apaintzen ziren. Denborarekin, ordea, sagarrak eta kandelak bola, argi eta beste apaingarri batzuegatik aldatu dira eta hurrei opariak uzteko usadioa gehitu zaio.

Sagarrak nahiz desioak zintzilikatu eta kandelak piztu ostean, bisitariak sagardo berridun barrikotea dastatzeko aukera izango dute gaztainerkin lagunduta, data hauetan ospatzen den usadioa.

## Barrikotea gaztainerkin

Aurreko urteetan bezala, sagardoaren kulturako usadio zahar hau berreskuratuko da: **barrikotea**, eta **gaztainerkin** lagunduta dastatuko da.

Garai batean, elaborazio lanak amaitutakoan, barrika bat muztioarekin betetzen zuten. Bi aste beranduago festa bat antolatzen zen bizilagunen artean barrikotea gaztainerkin lagunduta dastatzeko.

## Ordutegiak

Hauek dira Sagardoetxeak abenduko zubian izango dituen **ordutegiak**:

- **Abenduak 6, 7 y 8**: 11:00-13:30 eta 16:00-19:30
- **Abenduak 9**: 11:00-13:30

## Tarifak:

Hauek dira abenduko zubian Sagardoetxeak eskaintzen dituen jardueren **tarifak**:

– **Helduak**:

- Sagardoetxeako bisita gidatua + Gabonetako pinuaren apainketa + Barrikotearen dastaketa gaztainerkin: 5,50€ pertsonako.
- Sagardoetxeako bisita gidatua + Gabonetako pinuaren apainketa + Barrikotearen dastaketa gaztainerkin + Bazkaria/afaria sagardotegian: 34,50€ pertsonako.

– **Haurrak**:

- 0-9 urteko haurrak (heldu batek lagunduta): **Doan** (sagar muztio dastaketa barne)
- 10-17 urteko haurrak: **3,50€** (bisita gidatua eta sagar muztio dastaketa barne gaztainerkin lagunduta)

## Erreserba egin

## Bilatzailea

<input type="text"/>	Bilatu
----------------------	--------

## Kategoriak

Agenda

Argitalpenak

Azokak

Berriak

Ekitaldiak

Erakusketak

Esperientziak



[Formazioa](#)[Gastronomia](#)[Historia](#)[Kultura](#)[Lehiaketak](#)[Museoak](#)[Sagardoa](#)[Sagardotegiak](#)[Sagarra](#)[Sagastia](#)[Turismoa](#)

## Artxiboak

## ZATOZ ETA GOZATU

**SAGARDOAREN  
LURRALDEA**

el territorio de la vida

Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

## LAGUNTZA BEHAR DUZU?

📞 943 550 575

JARRAI IEZAGUZU...



### ESPERIENTZIAK

Zure plana erreserbatu

Neurrira egindako esperientziak

Hautatutako ibilbideak

Beste proposamenak hemendik gertu

### SAGARDOTEGIAK

Sagardotegia erreserbatu

Sagardotegia aukeratu

Garraioa sagardotegietara

Sagardotegiaz gozatzeko gomendioak

### SAGARDOETXEA

Sagardoetxea – museoa

Erakusketa eta bisita guneak

Bisita motak

Nola iritsi eta sarbideak



[Nola mugitu](#)

[Tarifak eta ordutegiak](#)

[Non lo egin](#)

[Bisita erreserbatu](#)

[Gidak eta informazio praktikoa](#)

[Bisita birtuala](#)

[Dokumentazio Zentroa](#)

[SAGARDO FORUM](#)

[AGENDA](#)

[BLOGA](#)

[HEDAPENA](#)

[Informazio orokorra](#)

[Boletina](#)

[Argazkiak](#)

[Buletinera harpidetza](#)

[Hitzaldiak](#)

[Sare sozialak](#)



**EUSKADI**  
**BASQUE COUNTRY**



© 2019 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua  
LEGEZKO INFORMAZIOA

[NOR GARA](#)

[PROIEKTUAK](#)

[AKORDIOAK](#)

[KONTRATATZAILEAREN PROFILA](#)

